

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak LGTBI taldeari laguntzeko berriazko unitate bat du dagoeneko

Lehen aldia da Gobernuak bere organigraman ezaugarri horretako arlo bat duena

Astelehena, 2017.eko maiatzak 15

Nafarroako Gobernuak dagoeneko LGTBI taldeari laguntzeko berriazko administrazio-unitate bat du Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren barruan (NBI). Talde horren eskubideen benetako berdintasuna bultzatzea eta sustatzea da helburua.

LGTBI Berdintasun Unitate hau gaur goizean

aurkeztu dute Ana Ollok, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak, eta Mertxe Leranozek, NBIko zuzendari kudeatzaileak. Biek, "Nafarroako Gobernuak edozein motatako diskriminazioaren kontra, eta nola ez, arrazagatik gertatzen diren bazterkerien kontrako borrokan aurrera egiteko konpromisoa" berretsi dute.

Ollok kontseilariak azaldu duen moduan, LGTBI taldeak duen bazterkeria, ez ikusteagatik, estigma kutsatzeagatik eta askotan laguntza faltagatik gertatzen da. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen du "genero-nortasunen aniztasuna errespetatzea aldarrikatzen duen gogoeta egitea eta sexu eta genero aniztasuna kontuan hartzen duten LGTBI politikak garatzea". Azken horien artean, Kattalingorri taldearekin lankidetzahitzarmen bat dutela gogoratu du. Nafarroako erreferentziako erakunde bat da sexu eta generoarengatik bazterkeriaren aurkako lanean eta borrokan, eta urritik abendura 511 kasu artatu zituen. Horrek erakusten du Foru Komunitateak mota horretako zerbitzuak behar dituela.

LGTBI berdintasun unitatea

Nafarroako Gobernuak bere organigraman mota horretako arlo bat sartzen duen lehen aldia da.

Horrek, Gobernuak berdintasun politikak egitearen alde egindako apustuan beste urrats bat ematea ekarri du.

LGTBI Berdintasun unitateak Nafarroan eta Nafarroa osorako egiten



Nafarroako Gobernuak LGTBI taldeari laguntzeko berriazko unitate bat du

diren politikak koordinatuko ditu, eta berdintasun-politikak indartzeaz gain, sexu eta genero aniztasuna barne hartuko du agenda politikoan, talde horrek izaten dituzten bazterkeria guztiak gainditzeko helburuarekin.

Unitate horren burua B mailako aditu bat izango da, eta eginkizun hauek izango ditu:

- Aholkularitza teknikoa.
- Estrategia eta ekintzak garatzen eta kudeatzen laguntzea.
- Arlo horretako prestakuntza-proposamenak egitea.
- LGTBI taldearen errealitatea ezagut dadin bultzatzea.
- Ebaluazio eta jarraipen tresnak eta adierazleak diseinatzen laguntzea.
- Dauden hitzarmenak prestatzea eta haien jarraipena egitea.
- Batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.
- LGTBI berdintasunaren alde lan egiten duten profesionalen eta erakundeen arteko sare-lanean laguntzea.
- Sexuagatiko bazterkeria-protokoloa izapidetzea.
- Genero-bazterkeria lantzeko helburuarekin diseinatzen diren ekintzetan laguntzea.